

Euskal AEko esportazioak 2.171 milioi euro baino handiagoak izan dira 2021eko maiatzean, % 39,2 handiagoak

Lehen bost hilen metatuak esportazioen % 25,8ko igoera eta 2.400 milioi eurotik gorako superabitata erakusten du

Euskal AEko ondasunen **esportazioetan** –2.171,6 milioi euroko balioa–, % 39,2ko igoera erregistratu zen 2021eko maiatzean, aurreko urteko hil beraren aldean; bigarren erregistro onena izan da, 2019ko abendutik, Eustaten datuen arabera. Esportazio ez-energetikoeak % 41,9 egin zuten gora, eta energetikoeak, % 3,5 behera.

Bestalde, **inportazioek** (guztira 1.733,8 milioi) % 62,2 egin zuten gora; igoera izan zen bai produktu energetikoetan (% 169,9) bai ez-energetikoetan (% 45,2).

2021eko maiatzean, saldo komertziala –esportazioak ken inportazioak– positiboa izan da, eta 437,8 milioi eurokoa izan da; hala, estaldura-tasa % 125,2koa izan da.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2021 Maiatza

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Maiatza			Maiatza		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	1.560.278	2.171.630	39,2	1.069.263	1.733.846	62,2
PRODUKTU ENERGETIKOAK	92.020	88.826	-3,5	119.709	355.471	196,9
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.468.257	2.082.803	41,9	949.555	1.378.375	45,2
URTEKO METATUA	8.170.754	10.281.255	25,8	6.619.536	7.877.155	19,0
PRODUKTU ENERGETIKOAK	500.994	464.475	-7,3	1.445.592	1.489.685	3,1
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	7.669.761	9.816.780	28,0	5.173.944	6.387.469	23,5
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	453.032	614.770	35,7	232.624	410.530	76,5
URTEKO METATUA	2.278.760	3.069.845	34,7	1.399.578	1.839.888	31,5
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	578.962	871.780	50,6	560.819	943.761	68,3
URTEKO METATUA	3.185.791	4.088.625	28,3	3.748.013	4.239.649	13,1
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	528.284	685.079	29,7	275.820	379.555	37,6
URTEKO METATUA	2.706.204	3.122.785	15,4	1.471.946	1.797.617	22,1

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Hiru lurralde historikoeak, laugarren hilabetez jarraian, balio negatiboak izateari utzi diote, eta esportazioetan honako igoera hau izan dute ehunekoetan: Gipuzkoan, % 29,7koa; Araban, % 35,7koa, eta Bizkaian, % 50,6koa. Bizkaiaren kasuan, esportazio energetikoeak izan duten % 4,5eko beherakada nabarmendu behar da.

Arabian, esportazioak “Garraioaren material”ean kontzentratzen dira, eta esportatutako guztiaren % 55,2 dira; % 20,5 egin dute gora. Modu berean, honako hauek ere igo dira: “Plastikoak, kautxua eta haien manufakturak” (% 83,7), “Metalak eta haien manufakturak” (% 48,1) eta “Materiala,

makina eta aparatu elektrikoak (% 45,3), hilabete honetako lau arantzel-sekzio garrantzitsuenak aipatzearren; gainerakoek ere –bik izan ezik, atzera egin baitute– igoera nabarmenak izan dituzte.

Gipuzkoan gora egin dute *“Metalen eta haien manufakturen”* salmentek (% 45,7), *“Material, makina eta aparatu elektrikoak”* salmentek (% 29,4) eta *“Garraio-materialaren”* salmentek (% 13,2). Gainerako sekzioetan –bitan izan ezik– atzerrirako salmentak ere handitu dira.

Bizkaiko esportazioak beste lurraldeetako joera berari eutsi dio, baina igoera are nabarmenagoarekin, % 50,6ko igoerarekin, *“Garraio-materialen”* (% 242,3), *“Material, makina eta tresna elektrikoak”* (% 65,2), *“Plastiko, kautxu eta haien manufakturen”* (% 77,1) eta *“Metalen eta haien manufakturen”* (% 20,3) esportazioaren gorakadaren ondorioz. Soilik lau arantzel-sekziok dituzte hazkunde-tasa negatiboak, eta haien artean nabarmentzekoa da *“Produktu eta mineral energetikoena”* (–% 2,4).

2021eko maiatzean, bost herrialde (Alemania, Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Norvegia) izan dira Euskal AERen bezero nagusiak, guztizkoaren % 48,8 eurenaganatuta (1.060,2 milioi). Haietako bi esportazioen % 59,3 biltzen duen EB27koak dira. Ehuneko hori % 65,2koa izango litzakete EB28 desagertuaren kasuan.

Zazpi helmuga nagusietara bideratzen diren salmentak esportazioen % 53,9 hartu dituzte aurtengo maiatzean. Belgikara zuzendutako salmentak % 63,8 hazi dira, eta beste herrialde batzuetako hazkundeak honako hauek dira: Frantzia % 36,0, Erresuma Batua % 35,2, Italia % 25,1, Alemania % 22,8, Belgika % 21,8 eta Herbehereak % 16,9. Europar Batasunetik kanpo, hiru herrialde nabarmentzen dira: Estatu Batuak, % 57,5eko igoerarekin esportatuetan; Norvegia, % 703,6 gehiagorekin, eta Txina, % 39,1eko igoerarekin.

Inportazioen erdia baino gehiago EB27tik etorri da (zehazki, % 54,4), eta % 57,1era iritsiko ziren EB28 zaharrean. Hil honetan Alemaniak erkidegoko inportazioen % 28,1 kontzentratzen du, guztira 264,9 milioi euroarekin eta % 34,7ko igoerarekin, eta, ondoren daude Frantzia (158,7 milioi euro eta % 66,0ko igoera) eta Italia (100,1 milioi eta % 66,4ko igoera). EB27tik kanpora, baina Europako eremuan, Erresuma Batua nabarmentzen da: % 68,6ko igoera eta 47,9 milioi.

Munduko gainerako herrialdeei dagokienez, honako hauek dira inportazio-bolumen handiena izan duten herrialdeak: Mexiko, 109,3 milioi (% 660,3ko hazkuntza); Txina (108,1 milioi), Errusia, (91,3 milioi) eta, alde nabarmenarekin, Estatu Batuak (26,9 milioi) eta Brasil (26,3 milioi).

2021eko maiatzean merkaturatutako produktuak

Hamar **arantzel-partida** nagusiek esportazioen % 38,8 kontzentratu zuten; baterako balioa 843,0 milioi eurokoa izan zen.

Lehenik eta behin, *“Automobilentzako zati eta osagarrien”* esportazioen igoera nabarmena aipatu behar da, % 126,9 egin baitute gora. Gora egin dute, nabarmen, halaber, *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (% 81,4). Joera positiboa izan dute ere arantzel-partida nagusiek; izan ere, 25 nabarmenetatik, lau baino ez dituzte izan hazkuntza-tasa negatiboak. Lau horietatik, honako hauek gailentzen dira: *“Petrolio olio finduak”* (% 17,5 egin du atzera), *“Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak”* (–% 31,8) eta *“Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuak”* (–% 23,8). Deigarria da, aldi horretan, Bizkaian honako hauetan egin den salmenta: *“Arrantza-itsasontziak eta itsasontzi faktoriak itsas produktuen tratamendurako”*, 57,9 milioi euroan.

Aurtengo maiatzean, 25 arantzel-partida nagusietatik, sei automobilgintzaren sektorekoak dira eta horietako lau lehen posizioetan daude. Sektore horrek, urte arteko % 35,1eko hazkuntzarekin, lortu du aurreko urteko hil berean baino 155,9 milioi gehiago esportatzea; aldi hartan, ia erabat etenda

egon zen jarduera ekonomikoa industria mota horretan. Hala, “10 pertsona baino gutxiagoko turismoek” % 11,3 egin dute gora, “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilek” % 28,5 eta “Trenbideetarako eta antzekoetarako ibilgailuen zatiek” % 13,0, aipatutakoez gainera.

Euskal AEko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak (milaka euro) (p). 2021eko maiatza

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	1.560.278	2.171.630	100	39,2
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	165.880	184.599	8,5	11,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	60.497	137.254	6,3	126,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	96.367	123.860	5,7	28,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	46.839	84.945	3,9	81,4
Petrolioaren olio finduak	86.744	71.602	3,3	-17,5
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	33.000	58.283	2,7	76,6
Arrantza-itsasontziak eta itsasontzi faktoriak itsas produktuen tratamendurako	0	57.859	2,7	-
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	32.609	53.923	2,5	65,4
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	34.000	38.422	1,8	13,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	21.140	32.221	1,5	52,4
Transformadore elektrikoak, bihurkailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	15.134	30.889	1,4	104,1
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	40.294	30.707	1,4	-23,8
Landu gabeko aluminioa	6.016	24.994	1,2	315,5
Burdina edo altzairuzko gainerako enbrazaturak	24.939	23.508	1,1	-5,7
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	9.947	22.884	1,1	130,1
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	32.608	22.227	1,0	-31,8
Ardoa, mahats freskoarena	13.105	22.149	1,0	69,0
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	10.080	21.945	1,0	117,7
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	16.146	21.541	1,0	33,4
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketatara euskarriak	11.104	21.195	1,0	90,9
Haria, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	8.699	19.698	0,9	126,4
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	13.371	19.696	0,9	47,3
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	11.600	19.653	0,9	69,4
Kobreko zakarrak eta hondakinak	9.488	19.388	0,9	104,3
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicioen-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	7.229	17.831	0,8	146,7

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, pisu espezifiko handieneko produktuak, “Petrolio eta mineral bituminosozko olio gordinak” (guztizkoaren % 13,9), % 257,3ko igoera izan du, 2020ko maiatzaren aldean, eta joera hori inportazio-rankingeko lehenengo 60 partidekin partekatzen du, baina “Beroan laminatutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak” partida da salbuespena, % 33,8 egin baitu atzera.

Multzo horretan, “Petrolio olio finduak” nabarmentzen dira; 2020ko hil berean baino % 124,0 gehiago izanik, hileko bigarren posizioan daude. Haren ondoren, “Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak” daude (% 141,2 gehiago inportatua) eta “Enbolo-, diesel- edo erdi-diesel-motorrak” (% 60,7ko igoera), besteak beste.

URTEKO METATUA – 2021EKO LEHEN BOST HILABETEA

Kanpoko saldoak 2.404,1 milioi euroko superabita izan du, eta estaldura-tasa % 130,5ekoa da

2021eko lehen bost hilotan, Euskal AEko **esportazioek** % 25,8ko igoera izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean; alegia, 2.110,5 milioi euro gehiago. Aldi horretan zenbateko esportatzailea 10.281,3 milioiokoa da, eta kopuru horri Bizkaiak egiten dio ekarpenik handiena, 4.088,6 milioiokoa (guztizkoaren % 39,8), gero Gipuzkoak (3.122,8 milioi) eta, ondoren, Arabak (3.069,8 milioi).

Bizkaiko esportazioak Euskal AEko garrantzitsuenak dira, lurralde horretan urte batetik bestera % 28,3ko hazkundera izan baita (2020an baino 902,8 milioi gehiago). Araban hazkundera are

handiagoa da eta % 34,7ra iritsi da (791,1 milioi gehiago), eta Gipuzkoan % 15,4koa da (416,6 milioi gehiago).

Esportatutako produktu mota kontuan hartuta, egiaztatu da “Produktu energetikoen” esportazioek behera egin dutela (-% 7,3) eta “Produktu ez-energetikoen” esportazioek gora (% 28).

2021eko lehen bost hiletan gehien saldu diren hamar produktuek (arantzel-partidak) guztizkoaren % 40,1 kontzentratzen dute, 4.127,1 milioiko zenbatekoarekin. Horietako bakarrak egin du nabarmen atzera 2020ko epe berarekin alderatuta: “*Petrolio olio finduak*” (% 15,4 gutxiago). Multz horretako gainerako produktuek gorako tasa nabarmenak dituzte, batez ere automobilgintzarekin lotutako produktuek; hala, adibidez, “*Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen zatiek*” % 102,5eko igoera izan dute eta “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilek*” % 54,4koa; joera bera izan dute “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoek*” (% 51,1 gora), “*Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak*” (% 34,6 gehiago) eta “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (% 32,8).

2021eko lehenengo bost hilabete hauetako ranking esportatzailearen arabera, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, 1.778,0 milioirekin, esportatutako guztizkoaren % 17,3. Alemaniaren atzetik, Frantzia (1.609,9 milioi), Erresuma Batua (706,2 milioi), Estatu Batuak (621,9 milioi), Belgika (552,1 milioi) eta Italia (532,1 milioi) daude. Horrela, sei herrialde horietan kontzentratu da esportazioen % 56,4. Aipaturiko nazioen kasuan, Estatu Batuen kasuan izan ezik, esportazio horien zati nagusia “*Ibilgailu automobilen zati eta osagarrien*” arantzel-kapituluari dagokio, eta horien guztien artean Alemania nabarmentzen da; izan ere, bertan, esportazioen % 53,2 arantzel-kapitulu horri dagozkion produktuena da. Estatu Batuen kasuan, zati handiena (% 27,0) “*Galdarak, makinak, aparatu eta tresna mekanikoak eta haien zatiak*” kapituluari dagozkio.

Euskal AErako **inportazioen** metatua, aintzat hartutako aldian, 7.877,2 milioi euro ingurukoa da. Urte arteko kopuru hori alderatuta, ikusten da 2020ko epe berean erregistratutakoa baino 1.257,6 milioi handiagoa dela. % 19,0ko igoera horren arrazoia da hiru lurralde historikoek gora egin dutela, nabarmen, aurreko urteko datuen aldean. Bizkaiak (4.239,6 milioiko inportazioak) epe honetan % 13,1eko igoera izan du, hau da, aurreko urteko epe berean baino 491,6 milioi gehiago; Arabak, % 31,5ekoa (440,3 milioi gehiago), eta Gipuzkoak Bizkaiaren ehunekoa gainditu du, eta % 22,1ekoa izan du (aurreko urtean bost hilabete hauetan izandako metatua baino 325,7 milioi gehiago).

“Produktu energetikoen” inportazioak, aldi honetan, gora egin du, pixka bat, % 3,1 (2020an baino 44,1 milioi gehiago), eta 1.489,7 milioiko metatura iritsi da.


Gure inportazioen buruan “*Petrolio edo mineral bituminosozko olio gordinak*” daude, 1.042,2 milioirekin, epe honetan beherakada izan duen arren (% 6,0). Aitzitik, igo egin dira “*Petrolio olio finduen*” inportazioak (% 124,6). Honako beste sektore hauetan kanpoan egindako erosketek ere gora egin dute: “*Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak*” (% 45,9), “*Soja-babak, baita hautsiak ere*” (% 43,3), “*Enbolo-, diesel- edo erdi-diesel-motorrak*” (% 33,1), “*Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra*” (% 64,7) eta “*Aluminio gordina*” (% 102,2).

Jatorrizko herrialdea aintzat hartuta, Alemaniak 2021eko maiatzera arte metatutako Euskadiko AEko inportazioen % 15,8 kontzentratzen du; ondoren, Frantziak (% 9,9), Italiak (% 5,7), Herbehereek (% 3,4) eta Erresuma Batuak (% 3,4).

Euskadiko AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2021ko lehen bost hiletan, 2.404,1 milioi euroko saldo positiboa izan du, aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino 852,9 milioi handiagoa, eta horrek aldeko estaldura-tasari eustea dakar, % 130,5ekoari.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Miloi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62